

oinkari

DANTZA TALDEA

ari du

DVD hau Zarausko Aritzatalde Kiroldegian grabatua izan da 2011ko urriaren 11an. Eskuetan DVD hau hartu eta ziur gaude burura etorri zaizun lehen galdera «Zergatik ARI DU?» izan dela. Proiektuaren nondik norakoak hitz gutxitan azaldu nahiko genizkizuke, guk barrutik bizitu duguna, zuk kanpotik bizitu dezazun.

Hasieratik garbi genuen dantza guztietan erritmoa dela guztia markatzen duena. Dantzari baten belarrietan erraz desberdintzen baitira fandango bat, arin arin bat edo Bizkaiko zortziko bat, esaterako. Euria, aipatu dugun erritmo hori markatuko zigun elementu garbia zela ikusi genuen, berak ere erritmo desberdinak izan baititzake: xiri-miria, itogin bat, ekaitz gogor bat... Lotura hori probestuz eurian oinarritu gara emanaldi hau osatzerako garaian.

Emanaldian zehar dantza bakarrik utzi nahi ez eta, literaturako arlo desberdinak aztertu ondoren, poesia iruditu zaigu euriak markatutako erritmoa bilatzeko modurik errazena. Esaldien luzerek, hitzen errimek, errezitaldiak berak erritmo ugari marka ditzakete eta joko honek asko errazten du dantza eta poesiaren arteko uztarketa hori. Poemetan deskribatzen diren egoerek ere lagundu egingo digute dantzen arteko lotura ulertzen.

Dantzari dagokionez, Oinkari dantza taldeak tradizioetik edan du orain arte eta edaten jarraituko duenez, emanaldi honetan hainbat euskal dantza ikusteko parada izango duzu. Hain ezagunak ez diren inguruko herrietako dantza tradizional batzuk ere berreskuratu nahi izan ditugu emanaldia osatzerako -garaian. Bestalde, eta garaia aldatuz doazenez, euskal pausoetan oinarritutako eta Edu Muruamendiarez osatutako koreografia batzuk ere errepertorioan sartu ditugu. Gure iritziz bi munduek baitute lekua gaur egunean eta bien arteko uztarketa posible dela erakutsi nahi izan dugu emanaldian.

Oinkari Dantza Taldea ez da dantza talde arrunta. Azken boladan gauza berritzaileak egiten ari da: Korrontzi taldearekin diskoa, DVD berria. Zuen iraute hori honelako gauzei dago loturik?

Bere lehen pausoetatik Oinkari dantza taldearen helburua beti izan da euskal dantzak jaso, ikasi eta irakastea. Helburu honek lagundu digu hasiera-hasieratik irauten. Hala ere, gaur egun iraute hori bera oso zaila gertatzen denez, egungo gizartearen ezauzgarri nagusi bihurtu den berrizaleatasuna kontuan hartu behar izan dugu, beti ere gure erroak ahaztu gabe. Bide honetan Korrontzirekin izandako elkarlanak, Amantalen Ahotsa 75 urte ikuskizunean parte hartzeak... asko lagundu digute Oinkari gaur egun dena izatera iristen. Azken pausoa gaur aurkeztera gatozen DVDa dugu.

Oinkari Dantza Taldea eta Edu Muruamendiarez eskutik hartuta. Bat ikasle eta bestea maisu?

Edu Muruamendiarez taldean sartu zenean, duela 7 bat urte, hasi ginen gure emanaldiei itxura berri bat ematen. Betiko euskal dantzak ikasten jarraitzeaz batera, koreografia eta dantzamolde desberdinak jorratu ditugu. Maisu aparta izan dugu Edu lan honetan eta horren adibide ditugu berarekin atera ditugun hiru emanaldiak: Oroituz, Aspaldikotik eta aurren plazaratu berri dugun ARI DU. Ikasle eta maisu moduan hasi zen erlazioa, bi lagun ezinoheren artekoa bihurtu da denboraren poderioz.

Oinkari ari du eta Oinkari ari da. Oinkari DVDratu nahi izan duzue betiko?

36 urte luzeetan zeharreko Oinkariren historia argazki bidez mantendu da orain arte eta gu ere historia horren zati izanik, modu berezi batean gorde nahi izan dugu azken urte hauetako lanaren fruitua. Emanaldiaz gain, gaur egun Oinkari dena islatzen saiatu gara DVD honetan, nola egiten dugun lan, norekin, norentzat... DVDratu dugun ARI DU lan hau arrotasunez betetzen gaituen lana dela onartu behar dugu, eta era berean, gustatuko litzaigukeena da hasiera-hasieratik taldeko partaide izan diren guztientzat opari polit bat izatea, eta nola ez, etorkizunean etorriko diren guztientzat ere, erreferente eta oroigarri goxo bat izatea. Oinkari ari baitzuen, Oinkari ari baitu eta Oinkari ariko baitu.

ribxi aizpuru (2011ko abenduaren 2)

